

nagusitu ziren, eta haien arteko norgehiagokak ere piztu ziren; esaterako, Ball, Huelsenbeck eta Tzararen arteko liskarra *dada* izena norik asmatu zuen argitze-ko. Bada, Henningsek asmatu zuen *dada* hitza. Ballekin erabiltzen zuen etxeko kode bat zen: kalera atera nahi zuenean, «*dada*» esaten zion senarrari haur baten ahoskera erabiliz, *dada* *han* esan nahi baitu alemanez.

Kartzelako idatziak

Prostituzioan ari zela, Henningsek lau txakur txiki ostu zizkion bezero bati, eta, lapurreta horren ondorioz, sei aste igaro zituen espetxean; esperientzia horretatik sortu zen, hain justu, 1919ko *Gefängnis* liburu autobiografikoa. Autoreak estilo hotz, simple eta sikua erabili zuen testuan, narrazio existentzialista aurrerazten zuena. Garai hartako artista eta sortzaileek goraiapatu egin zuten obra. El Paseo argitaletxearen edizioan, Henningsek ziegan egindako ilustrazioak ez ezik, 1913 eta 1916 bitartean idatzitako poemak lagin bati ere jasotzen du, *Eterraren estrofak* izenburupean; besteak beste, *Die Aktion* literatur aldizkarian eta *Cabaret Voltaire* buletin dadaistan argitaratuak. Poemategi labur horrek aise gainditzen ditu zeldako letra izoztuak. Horren adierazle dira *Eter* poemaren hitzok:

Euriak kristalak jotzen ditu
Lore batek gorrimin [dirdiratzen
du].
Haize hotzak putz egiten dit
[bekokian].
Esnatuta al nago edo heriotzaz
[beteta?]
Mundu bat ikusten da urrunean,
[oso urrun,
Erloju batek laurakjo ditu, emeki.
Eta ni denbora oroz kanpo.
Zure besoetara noa...

Oinazetutako erabateko artista izan zen Hennings, diziplina anitzekoa. Hauze jaso zuten *Neue Amsterdamer* argitalpenean, Cabaret Voltairereko ikuskizunaren harira: «Ederra ez baina adierazkorra den ahotsarekin abesten du, eta haren aurpegitxoak, morfina markatuak, dir-dir egiten du, haren marrakzki boteretsuek bezalaxe». Eta *Zürcher Post*-en beste hau agertu zen: «Emmy Hennings da Cabaret Voltairereko izarra, hainbat kabaret gautako eta poematako izarra». 63 urterekin hil zen, Luganon, alaba eta ilobak ondoan zituela. Ballen ondoan lurperatu zuten. Hiletara ez zen dadaista bakar bat ere agertu.

Poeta helduaren autorretratu

Peru Iparragirre

Lehen poema bilduma argitaratu du, paperean, Josu Goikoetxeak. Papelean argitaratu duen lehen poema bilduma dela diot, lehenetik ere bere blogean poema saldotxoak argitaratu baitu, irakurleei tantaka emanez. Orain dela bi hamarkada pasa Lubaki Bandak edukiz betetako *Susa* aldizkariaren zenbakietan ere aurki daitezke bere testu batzuk. Lehen poema liburua du Goikoetxeak, beraz, *Zer luzea negu hau*. Hala izanik ere, eskarmentua dator poeta lehen liburua honetan.

Epigrafe gisa jarritako Leonard Cohenen hitzen ostean datorren *Poeta gaztea (olioa mihisean)* poemak ematen dio hasiera liburuari; orain ia bi hamarkada idatzitako testu horek egile gisa aurkezten du poeta, aspaldi pasea den iragana orainaldian kontatuz, eta lehen zatian mantenduko den estilo des-

kribatzaileari bide emanez. Datorenekin alderatuta tragikoagoa iruditzen duen poeta autorretratu. Gogoeta hauze egiten du leihoko begiraleak *Mise en scène* poeman: «Polita da eszena / ala gupida estetiko batek apaindutako / koadro zatar bat besterik ez da?».

Lehen zatiko estilo narratibodeskribatzaileari naifa iritzi diot batzuetan, xaloa, nahiz eta ez ho-

JOSU GOIKOETXEA
Zer luzea negu hau



'Zer luzea negu hau'

Idazlea: Josu Goikoetxea.
Argitaletxea: Elkar.

O Polokodrilo



Imanol Mercero

Haur sentitzen diren helduentzat, edo heldu sentitzen diren haurrentzat». Halako eskaintzarekin datorren liburu batekin arriskatzeko denak ez du kezarako aukerarik. Badaki barruan aurkituko duena eroa izango dela, gutziz aldrebesa, neuronaz gaindikoa... Norbere kontu halako paraje batera hurbiltzea.

Hiru adibide sor lezakeen neurona-nahasmendua irudikatzen: Denonartean argitaletxeak bere webean «gazte literatura» dela dio; aldiz, *Elkar.com* webean «poesia» dela diote («haur» gabe, helduentzat dela suposatzen da); eta Katalogo Bateratuan «haur poesia» zein «errimak-haur eta gazteentzako liburuak» gisa etiketatzen dute. Bat aukeratzekotan, azken izendapenarekin gelditzen naiz.

Izan ere, barruan topatuko duguna horixe da, errimaren aitzakian egindako neurona jolas (ustez) sinplea: «Liburu txuri/fantasia guri», «Momorro/Pentsamendu zomorro», «Taupadak/Bihotzaren zaunkadak».

Ilustrazioek (azalekoa kasu) tonuari eustien diote, absurdotik abiatuta testuarekin elkarrizketa moduko bat sortuz. Kanila duen obusaren gainetik ageri den deabru buruaren marrakziarekin erantzuten dio, esaterako, «Bonbotro/Demonio potro» errimari. On egin, Mari Domingin!



'Zupankapalook'

Idazlea: Pello Añorga.
Marrakzilari: Jokin Mixtelena.
Argitaletxea: Denonartean.

irregatik ezaxola. Lehenetik aurrera, poetaren begirada helduagoa dela iruditzen zait eta poeta helduaren autorretratu egiten duela liburu liburu zehar. Ageriko sinpletasun horretatik ari da poeta munduan, dago poeta munduan, da poeta munduaren zati.

Bigarren atalean, lau laukok hausten dute liburuak dakarren tonua, formatuak behartzen duen eta Goikoetxeak bikain erdetsitako nolabaiteko lirismo dotoreak intermezzo atsegin bilakatzen ditu testuok.

Intermezzo liriko neurtuaren ostean ordura arte gutxitan agertu den lehen pertsona dator indarrez: «Hau guztia katastrofa da. / Azkenean ez dugu ekaizera moldatzen jakin». Lehen atalean munduaren begirale izan dena bere buruaren begirale bilakatzen da, izan dituen harremani buruz ari da, dituen harremani buruz, eta irudiz jantzitako poetaren barne mundua kanpokoarekin nola komunikatzen den antzeman daiteke. Poetika propio bat garatzen du Goikoetxeak, oso bere baitakoa, baina irakurleari ulertzen duela uste izaten uzten diona. Egunerokotasunaren erretratuaren zatiak

dira, eszena poetikoak, poetaren estetika gupidagabearen galbahtik emanak.

Bigarren intermezzo gisa ikus daiteke *Aitare berokia* atala, poemotan jotzen du goia liburuak, datozten poemei bidea zabaltzearekin bat: «Bitartean, / kaleetan zehar noa. / Bilbo handia da / eta urrun dauka muga».

Hurrengo atalean, dolua eta negu luzea esperantza izpiekin nahasten dira. Bila dabilzanak, horriek dituen protagonista, nahiz eta intermezzo atsegin bilakatzen dituen galdu duenaren oroitzapena, galdu dezakeenaren presentzia eta galdu behar duenaren kontzientzia ditu negu luzean lagun.

Azken atala ere bi poemek osatzen dute: alegoria eta asmakizun banarekin amaitzen da bilduma. Alegoria, poetaren kezken erantzuna datekeen eszena batean laburtzen da: Mungiarako bidean topatzen dituen hiru astoen jabearen begiradak ematen dio lasaitasuna munduak sortzen dion ezinegoren aurrean. Galdere klasiko batek ixten du liburua: noiz eman zer bait amaitutzat. Bildumaz ari dela iruditzen zait, noiz utzi poeta helduaren autorretratu margozteari, hori galdetzen duela.

Dena ez esatearen bertutea



Imanol Mercero

Biografia lan errealista da, eta Bizenta Antonia Mogel aurkezten digu, hau da, euskaraz liburu bat argitaratu zuen lehen emakumea. Formatuari dagokionez, album ilustratuzat jo daiteke, irudiek informazio osagarri asko eskaintzen baitute; baita oinarrizko datuak ere. Esaterako, irudien bidez jakiten dugu aitarek absentziak bultzatzen dituela osabarenera joatera, eta ilustrazioak erakusten digu bere *Ipuin onak* liburuaren azalean zer zegoen idatzita, zehazki, 1804ko lehen edizio hartan.

Testua laburra da, sintesi arriketa handia eginez eraikia, esaldi deskriptiboekin osatua, eta pertsonaia historikoaren biografian

mugarri batzuk ezartzen ditu, irakurleak uler dezan (haur) literaturaren aitzindari haren profil literarioa nola eraiki zen.

Liburu honen bertute handiena, hain zuzen ere, dena ez esatean datza. Irakurlea behartzen du galdetzerantz bertan esaten ez denaz, zeren, egiazki, zertzelada bartzuk baino ez baititugu bertan. Pertsonaiari buruzko irrika sorlezaketen zantzuak ditu; irakurlea erdibidean utziko dutenak; eta, dena ondo bidean, informazio peskizan jarriko dutenak.



'Bizenta txiki'

Idazlea: Yolanda Arrieta
Malaxetxeberria. Marrakzilari: Enrique Morente. Argitaletxea: Denonartean.